

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafar Lansarek Merkataritzako Profesionaltasun Ziurtagiri bat egingo du adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat

Enpresetan praktikak egiteko 15 plaza eskainiko ditu, eta gainditzen duten ikasleek N1 Profesionaltasun Ziurtagiriaren titulu ofiziala eskuratuko dute

Osteguna, 2017.eko urriak 5

Nafar Lansarek "[Merkataritzako jarduera osagarriak](#)" izeneko ikastaroan izena emateko epea ireki du Iruñean. Adimen-desgaitasuna duten langabeentzat bakarrik da.

Guztira 336 ordu izango dira, urriaren 23tik martxoaren 28ra. Berezitasun gisa, ikastaroak bere ohiko iraupena % 17 handitu du, kontzeptuak indartzeko eta ikasleei 1 mailako Profesionaltasun Ziurtagiriaren titulu ofiziala lortzen laguntzeko. Espainia osoan balioko du. Prestakuntzan Nafar Lansare aurretik harremanetan jarri den 15 enpresetan 60 orduko praktikak egiteko aukera barne hartzen da, apiril eta maiatza artean egitekoak.

Nahi duenak www.empleo.navarra.es web-orriko "prestakuntza" atalaren bidez eman dezake izena; bestela, posta-kodearen arabera [dagokion](#) agentzian. Lehentasuna izango dute 18-29 urte arteko pertsonak, biak barne, eta hasierako prestakuntza profesionaleko programa bat edo programa berezi bat egin dutenek, edo Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloaren eta DBHko lehen mailaren artean dagoen curriculum-maila bat dutenek. Izena ematen duten pertsonen artean hautaketa-proba bat egingo da.

Ikastaroa Iruñeko M^a Ana Sanz DBIn emango da, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara (ordu erdiko atsedenaekin). Metodologia gehiena praktikoa izango da, prestakuntza zer talderi zuzentzen zaion kontuan hartuta. Salmenta-puntuko eragiketa osagarrietako prestakuntza, eskaeren prestaketa, transpaleten eta eskorgen manipulazioa eta mugimenduak eta bezeroaren oinarrizko arreta.

Horrez gain, gizarte eta lan gaitasunen modulu bat ere emango da: laneko ohiturak (puntueltasuna, higiena...), motibazioa, talde-lana eta laguntza enplegu-bilaketan (curriculum eta elkarrizketa). Prestakuntza horri esker, hobeto moldatuko dira lan eta gizarte testuinguru desberdinetan.

Ikastaroa Hezkuntza Departamentuarekin eta [Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroarekin](#) batera programatu da. Nafar Lansarek ziurtapen-ikastaroak egokitzen ditu desgaitasunak dituzten pertsonendako, edukiak irakurketa errazeko metodoarekin emanez.

2016an Tuteran "Merkataritzako jarduera osagarrien" ziurtagiria antolatu zuen, eta Iruñean, "Administrazio-zerbitzuen eta zerbitzu orokorren eragiketa osagarriak".

Nafar Lansarek Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin enpresetan profil profesional estrategikoak garatzeko eta sartzeko egindako hitzarmenaren barruan, Nafarroako Industriaren Elkartek sustatuta, urriaren 16an 60 orduko "Mantentze-lanetako laguntzailea" izeneko beste ikastaro bat hasiko da Iturrondoko (Burlata) Nafar Lansareren zentroan eta Tasubinsan. Adimen-desgaitasuna edo garuneko paralisia duten pertsonentzat da, eta bere helburua da muntaketa-lanetan laguntzeko eta makinak eta industria-ekipamendua fabrikan instalatzeko, mantentzeko eta konpontzeko prestatzea.

2018ko lehen seihilekoan beste profesionaltasun-ziurtagiri bat izango da, adimen-desgaitasuna dutenendako ere bai: "Eraikinetan eta lokaletan gainazalak eta altzariak garbitzea".